

## «EDITORIALA»

Udarako oporrek tarte izan direla, hemen aurkezten dizuegu, ia bost hilabete pasa eta gero, ASKE gure aldizkariaren 2. zenbakia. Gure asmoa hiru hilabetetik hiru hilabetera ateratzeko asmoa izan da, baina lehen aipatutako oporrengeatik (dirudienez oporretan ez da lan askorik egiten) bigarren zenbaki hau atzeratu egin da.

Ez dakigu zuetariko norbaitek aldizkari honek jarraipenik ez zuela edukiko pentsatu duen, edo eta zenbaki batean soilik geratuko zenik. Ez da horrelakorik gertatu, eta proba hemen duzue.

Bigarren zenbaki honetan lehenengoaren eskema berdintsua jarraitu dugu: Lezoko historio eta pasadizoak, herriko elkarteren batekin elkarrizketa, gizarte bizitzaren zenbait erakusgarri, ipuiak, denbora pasak...

Honela poliki poliki gure herria nolakoa den aurkeztu eta ezagutzen joateko. Izan ere, hau da ta ASKE-ren helburuetako bat.

Konturatuko zineten ere bigarren zenbaki honen formatua haundiagoa dela, badirudi lehenengoaren letra txiki xamarra ikusten zela.

Honela, urrengo zenbakira arte, dazta ezazu, ustez hobeto egin dugun ASKE-ren bigarren zenbaki hau.

Udal Liburutegia / Lezo  
ASKE : Lezoko aldizkaria

LT ASK - Erreser.07



2073918

ASKE, Lezoko aldizkaria.